



EBAZPENA, 2022KO IRAILAREN 1EKOA, HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ JENDAURREAN JARTZEN BAITA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PROZESUA ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA.

Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasun sailbuaren, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailbuaren, Hezkuntza sailbuaren, Osasun sailbuaren, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailbuaren eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailbuaren 2022ko uztailaren 28ko Aginduaren bidez, aldez aurreko onarpena eman zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen dekretu-proiektuari.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Azaldutakoagatik, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 14. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

**Lehenengoa.** – Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzea. Izapidetze-fasean dagoen moduan jarriko da jendaurrean, hogeitaz egun balioduneko epean. Epea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita zenbatuko da.

**Bigarrena.** – Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, lege-aurreproiektuaren testua eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoan: (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>), baita euskal araudiaren atarian (Legegunea) ere (<https://www.legegunea.euskadi.eus>).

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 1a.

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria,

JOSEBA LOZANO SANTOS.

